

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## Entzumena

2E5

### A EREDUA

Deiturak: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

Ahozko azterketak **bi zati** izango ditu

Entzumena

Mintzamena

Entzumenaren ondoren, mintzameneko azterketa izango duzu.

Entzumena amaitu ondoren **10 minutu** izango dituzu mintzameneko proba prestatzeko.

Ahozko azterketa	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
	Entzumena	10	20	25 min inguru
	Mintzamena	15	30	15 min inguru
	<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>50</b>	

2010eko bigarren deialdia



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

# ENTZUMENA

## 1. TESTUA

Ondoren, **Maitasuna adierazteko moduen** inguruko irratsaioa entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. Orain **bi minutu** dituzu galderak irakurtzeko. Irakurri galderak.

### Adibidea:

0. *Irratiko esatariak zein pentsamendu izan du?*

a. *Zer opari eskaini gonbidatu bakoitzari maitemintzeko.*

b. *Nola adierazi bere maitasuna bakoitzari.*

c. *Gonbidatu bakoitza nora eraman bazkari erromantiko bat egitera.*

1. Ugaitzi nola adieraziko lioke maite duela?

a. Goizeko ordu txikitán, bizitza osorako maitasuna eskainiko lioke.

b. Eguerdi aldera, belarrira esango lioke.

c. Goizaldean, berarekin izarrak ikustera gonbidatuko luke.

2. Nola geratu da Ugaitz maitasun hitzak entzun ondoren?

a. Erabat lotsatuta.

b. Halakoak entzuten ohitua dagoela dirudi.

c. Maiteminduta gelditu da.

3. Eta Leireri nola esango dizkio maitasun hitz horiek?

a. *e-mail* bat bidaliko dio berari ere dantzatzea gustatzen zaiola esanez.

b. Dantzan elkartzea nahi duela adieraziko dio *e-mail*ez.

c. Gutun baten bidez dantzaleku batera gonbidatuko du, eta han bere maitasuna adieraziko dio.

4. Zer iruditu zaio Leireri?

a. Hitzak gustatu zaizkio, baina aurrez aurrekoa nahiago duela adierazi du.

b. Izugarri gustatu zaizkio hitzak eta esateko modua ere bai.

c. Hitzak gehiegi gustatu ez bazaizkio ere, esateko modua gutxiago gustatu zaio.

5. Harkaitzi, aldiz, nola adieraziko dio bere sentimendua?

a. Postal baten bidez, muxu batekin.

b. Oporretan dagoen lekutik idatziko dio gutuna.

c. Oporretara joan baino lehen idatziko dio postala.

6. Harkaitzi zer iruditu zaio?

a. Ez dago bere sentimenduaz ziur.

b. Ez daki nolako erantzuna emango duen, adierazpena nondik datorren.

c. Oporretara joango den lekuaren araberakoak izango dira bere sentimenduak.

7. Zer deitu diote Harkaitzi?

a. Zokorra.

b. Lehorra.

c. Mazoa.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

<b>0.- B</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>	<b>7.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

## 2. TESTUA

Orain, **arteari** buruzko audio bat entzungo dugu.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Orain **minutu bat** duzu galderak irakurtzeko. Irakurri galderak.

### Adibidea:

0. *Nongoa da gure protagonista?*

*a. Amerikarra.*

*b. Australiarra.*

*c. Britainia Handikoa.*

1. Zer da "Komodori buruzko 9 hitzaldi"?

a. Pintura mota baten izena.

b. Artelan baten izena.

c. Margotzeko estilo bat.

2. Zein pertsonaiari egiten dio erreferentzia?

a. Greziako enperadore bati.

b. Marko Antonio enperadoreari.

c. Erromatar enperadore bati.

3. Zein da lan horien esanahia?

a. Enperadorearen zoramena eta gainbehera.

b. Enperadorearen adorea eta indarra.

c. Enperadorearen emaztearen edertasuna eta jakituria.

4. Zenbat urtetan izan zen Komodoro enperadore?

a. 20.

b. 15.

c. 12.

5. Nolakoa izan zen bere agintean?

a. Bihotz onekoa eta zintzoa.

b. Tiranikoa eta desorekatua.

c. Justua eta eskuzabala.

6. Zer gertatu zitzaion bizitzaren amaieran?

a. Burutik eginda bukatu zuen.

b. Herkulesekin amets egiten zuen.

c. Bere onera etorri zen.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

<b>0.- A</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

### 3. TESTUA

**Gogle earth-erako lehiaketa** bati buruz hitz egingo dute irratsaio batean. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. Orain **minutu eta erdi** duzu galderak irakurtzeko. Irakurri galderak.

#### Adibidea:

0. Zer da irratiko esatariei gustatu zitzaiena?
- a. Googlek jarritako lehiaketa.
  - b. Beraiek irratian egindako lehiaketa.
  - c. Irratiak daukan web gunea.
1. Zein lehiaketa jarri zuen martxan *Googlek* duela gutxi?
- a. Munduko hiriak erakustekoa.
  - b. Edozein hiri 3D-n erakustekoa.
  - c. Munduko 5 hirien irudiena.
2. Zein da bertan azaltzen den hirietako bat?
- a. Bilbo.
  - b. Gasteiz.
  - c. Donostia.
3. Nola egin dute lan hori?
- a. Hiriko elementuak leku batetik bestera eraman dituzte digitalki.
  - b. Eraikinak goitik grabatu dituzte eta, X izpiak balitu bezala, barrukoa ikus daiteke.
  - c. Eraikina irudietan altxa ondoren, barruko zehaztasunak irudikatu dituzte.
4. Zenbat denboraz aritu dira lan hau amaitu arte?
- a. 2 bat urte.
  - b. Urte asko.
  - c. Urte bete.
5. Noiz hasi ziren lanarekin?
- a. Lehiaketa martxan jarri zenean.
  - b. Lehiaketa hasi baino lehenago.
  - c. Proiektua bukatua zuten lehiaketa martxan jarri zenean.
6. Zein dira hiriak ematen dituen erraztasunak?
- a. Kaleak oso politak izatea.
  - b. Auzo bakoitza bestearen ondoan egotea.
  - c. Kaleak paraleloak izatea.
7. Nolakoa da hiriaren irudia *Google earth*-en?
- a. Oraindik hobetzeko asko dauka.
  - b. Asko hobetu du.
  - c. Ez dago irudirik.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

0.- A	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----